


KULTURA ELKARRIZKETA NAIARA GORROÑO

Arrasate

P R E S S



Txikiñandíak 10 urte



IKUSPEGIA: MIKEL IRIZAR • EUREN IKUSPUNTUTIK: PEPA BOJO
IROL GAIA: BIZKORRAK TXAPELDUN • KULTURA GAIA: ARRASATE LEHIAKETAK 98

Etxeko konponketak

Tapizeriak

Konrado

Aulkiak, besaulkiak, sofak,...

Eskatu aurrekontua.

Nafarroa etorbidea, 23 MI11
Tel.: 607 45 72 51 • Arrasate

Eraikuntzak

Berecibar

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63

Igeltzaritza



Izcue Irurzun

Igeltzaritza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

Iturgintza

Aretxabaleta

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)

Tel.: 943 79 17 53



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

Margoak

APAIN

MARGO ETA APAINKETA

Matiena, 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



10.000 KOLORETAKO MENUA

Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87

Igeltsoak - Apaintzea

Pako eskaiolak s.l.

Markulete, 14

Tel.: 943 77 08 21

Pertsianak



PERSIANAS CARPER

Mota guzietako pertsianen
salmenta, muntaketa
eta konponketa

Eskuzko pertsiana eta elektrikoak

Anboto2. 1 esk. Tel.: 943 79 67 43
Mug.: 630 27 46 09

Txorrota

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

Elektrizitatea

ARANZABAL



COOP. E.

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15

Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83



RRASATE

Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak

24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77

Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93

HILEKO AHOLKUA

Elektragailuen kokapena:

Hozkailua berotasun guneetatik
urruti jartzea komeni da, edo
behintzat tresna
elektrikoengandik aparte.

Goi partetik ere arnasa hartu
beharra dauka, beraz, ez da
komeni hozkailu gainean ezer
jartzea.

Gida honetan azaldu nahi baduzu deitu
943 71 23 91 telefonora.

Garaia eta Goiena

Bi berbok Debarroaren goialde honen euskarazko lehengo izena eta berria dira. Baina baita, eskualdeari oso atxikita sortzen ari diren bi ekimen garrantzitsurena ere.

Garaia izenekoa dagoeneko aurkeztu dute hedabideen aurrean MCC eta Mondragon Unibertsitateko arduradunek. Berrikuntza eragitea helburu, mila lagunetik gorako pentsalari taldea bildu nahi da Arrasaten, arlo desberdinetan ideiak sortu eta lantzeko, gero unibertsitateak edo lantegiek garatu, erabili edo gauza ditzaten. Zehaztasunez ez diet asko erreparatu, akaso oraindik oso finkoak izango ez direlako, eta edozein kasutan gaiaren garrantziaz jabetzeko behar ez ditudalako.

Imajina itzazue mila buru ondo



Mikel Irizar

aukeratuak elkarrekin ideiak lantzen. Ez dakit zein unitatetan neurtzen diren adimena, edo sormena, edo pentsamendua, baina mila buru horien indarra bonba atomikoarena adinakoa izan liteke, zerbait esatearren, eta askoz onuragarriagoa.

Lehenik eta behin, egitasmoak eskualdea astindu egingo du. Ezin da horrelako plan anbiziotsurik

gauzatu batera azpiegiturak garatzen ez badira: errepide, komunikazio-sare, lurralde antolamendu eta mota guztietako zerbitzuak. Gu guztion ardura izango da hamar urte barruko eskualde eraldatu

hori gaurkoa bezain, edo gaurkoa baino gizatiarrago eta bizitzeko atsegino izatea. Eta bigarrenik, egitasmoa hemen eta honako sortu da. Oraingoa ez da kanpotik datorrenari pizgarri fiskalak ematea, edo txiripa itxura izaten duten operazio horietako

bat. Etorkezuneko ildo batzuen kontrola gorde nahia erakusten du, nolabaiteko bizi nahia.

Bestela ez, baina sarri inbidia sentiarazi dit estatubatuarrek etorkizunaren ildoak igarri eta horietan behar adina baliabide erabiltzeko duten abilezia. Berdin zinemagintzan Hollywood, edo informatikan Silicon Valley edo espaziorako lanetan Huston. Oraingoa, nire herrian eta gure eskualdean sortutako ekimen bati sumatu diot abilezia hori. Eta pozik nago.

Goiena izenekoa ekimena txikiagoa da, baina ez umilagoa. Honek ere, etorkizunearan estrategikoa izango den komunikazioaren arloan gutaz eta gure hizkuntzan jardungo duten zerbitzuak sortu nahi ditu. Ez inoren aurka, gure alde baizik. Horregatik, bestearen osagarri ere izango da, eskualdearen eraldaketan komunitate-zentzua eta giza-kohesioa gordetzeko sekulako tresna.

Ez dira, biak ere, urte berriari ekiteko animoarentzat pizgarri makalak!

Guztion ardura izango da hamar urte barruko eskualde eraldatu hori gaurkoa bezain gizatiarra izatea

“Kazetaritza oso mundu irekia da. Denetarik probatzea eta nork bere bidea aurkitzea da kontua. Ez diot ezeri ezetz esaten”.

Naiara Gorroño

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marijo Deogracias. **Kazetariak:** Ubane Madera, Maider Osa, Leire Kortabarria. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroitebe. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Arantzazu Loidi. **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain, Maite Urriolabellia (Tel.: 943 71 23 90). **Diseinua:** Maddi Trubuelo. **Asteburuetako berriemak:** Monika Belastegi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Salla, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trubuelo. **Argazkiak:** Eider Otsoa.

Arrasateko Udalerri laguntzaz
Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntzaz
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz

100

gaixo pasa dira eskualdeko ospitaleko larrialdi zerbitzuetik egunero

Azkenengo bi aste honetako datua da. Gripeak gogor jo du baztar guztietan eta Arrasaten ere asko izan dira Gabonetan eta ondorengo egunetan larrialdietatik pasa direnak.

ITURRI ONETIK

Krisialdiko kabinetea

Arrasaten hondamendi handi bat gertatuko balitz, krisialdiko kabinete bat eratuko litzateke berehala, egoerari aurre egiteko. Horixe ezartzen du Arrasateko Udalak onartu berri duen Larrialdi Planak.

Zortzi-hamar bat lagunek osatuko lukete kabinete hori: buru Xabier Zubizarreta alkatea, Ino Galparsoro alkateordea, Jose Mari Urizar “Ametzu” zerbitzuetako batzordeburua, Ainhoa Goenaga idazkaria, Jose Luis Etxebarria udaltzainburua, Juan Antonio Urdangarin Hirigin-tzako Teknikaria eta SOS Deiak-eko ordezkari bat.

Hondamendia nolakoa, mota bateko edo besteko biz-pahiru teknikari sartuko lirateke batzordean: osasun aditu bat izurritea izanez gero eta suhiltzaile bat sutea gertatuz gero. Kabineteak oraindik ez du bilerarik egin.

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

- Ostirala, 14**
- Azkoaga, Iturriotz
- Larunbata, 15**
- Korkuera, Musakola
- Igande, 16**
- Irizar, Erguin
- Astelehena, 17**
- Amezua, Santa Marina
- Astearte, 18**
- Zabala, Zarugalde
- Asteazkena, 19**
- Ruiz, Maalako Errabala
- Osteguna, 20**
- Morales, San Andres

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritxteak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
 Iguatorialdea 943 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 943 79 39 00
 (emakumeak) 943 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

Gurutze Gorria

Bergara 943 76 55 76

DYA

Antzuola 943 78 71 57

Anbulatorioak

Arrasate (Larrialdiak) . . . 943 03 53 00
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria 943 03 52 50
 • Espezialitateak 943 03 53 11
 • Ikuskatzailea 943 03 53 52
 • Kanpoko kontsultak: . . . 943 03 53 11
 • Fax zenbakia: 943 03 05 14
 Aretxabaleta 943 79 74 58
 Aramaio 945 45 51 16

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

Udalzaingoa

Oñati 943 78 04 11
 Bergara 943 77 91 06
 Arrasate 943 79 14 39
 Aretxabaleta 943 79 10 52
 Eskoriatza 943 71 44 07

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) . . . 943 79 09 00
 Argindarra (Iberduero) . . . 943 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 943 79 78 44
 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
 PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

Irratia

Arrasate Irratia 943 79 58 77

ASTE SANTUA

Ziur gaude, Arrasate moduko herri batean, antzina-ko Aste Santurako ohi-tura zaharrak berreskuratzen saiatuko bagina denon artean, inongo duda barik, izugarri-ko eragina, alde batetik, eta era berean, sekulako erakarpen zabal eta bizia piztera heldu edo iritsiko ginatekeela; herri barruan, nahiz herritik kanpo ere bai, noski.

Baina hemen aipaturiko guztia, egunen batez gauzatzea nahi baldin badugu, nahita ez beharrezko eta ezinbesteko ikusten dugu herri osoaren laguntza eta bultzada ematea hemendik eta herri osoari luzatzen dizuegun eskaintza benetan serio honi.

*Francisco Javier eta
 Jose Ignacio
 Barrutiabengoa*

Gutunen araudia

Erredakziora iristen diren gutunetan ematen diren iritziak balio handiagoa izan dezaten eta arazorik sor ez dadin, araudi berria ezarri dugu, gutunetako sailean.

Edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu, nahita ez:

- Egilearen izenez argitaratuko ditugu. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde izena onartuko da.
- Gehienez jota, 30 lerroko gutunak onartuko dira. Hor-tik gorakoa balitz, laburtzeko eskubidea izango du erredakzioak. Aurrez egilearekin harremanetan jartzen saiatuko gara.
- Anonimoak eta gaitzen edo inisialez datozenak ez dira argitaratuko.
- Ez da lekurik gordeko. Erredakziora ailegatutako ordeen kaleratuko dira gutun guztiak.
- Gutun iraingarririk ez da argitaratuko.
- Gutuna ekarri edo bidaltzen duenak berarekin harremanetan jartzeko modua adierazi beharko du egilea bera dela egiaztatzeko. Telefono zenbakia nahikoa da horretarako.

Kazetari berria



Leire Kortabarria oñatiarra da eta 22 urte ditu. Kazetaritza ikasketak amaitu berri ditu eta bera dugu *Arrasate Press* eta *Arrasate Telebistako* kazetari berria.

Aurretik DVn kazetari-tzako praktikak egin zituen eta abenduaz geroztik gure artean daukagu. Ongi etorri!

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
 Tel.: 943 79 81 82

UGARAN
 jatetxea
 Garagartza auzoa
 Tel.: 943 79 76 58
 ARRASATE

M
MEMESA
 Industria hornidurak
 Tel. 943 71 24 25

Zer diozu 2000 efektua saihesteko hartu diren neurriei buruz?

Enpresa askok ordenadoreak berriztu ditu 2000 efektuaren beldurrez



Koro Abetxuko
(48 urte)
Langilea

Neurri gutxi hartu dira. Dena dela, nik ez dut ezer berezirik igarri.



Amaia Zubillaga
(16 urte)
Ikaslea

Hartu diren neurriak gehiegizkoak izan dira. Gero, gainera, ez da ezer gertatu.



Jabier Zabala
(38 urte)
Langilea

Neurri gehiegi hartu da. Zarata eta beldur handia egon da. Diru pilo gaustu eta gero, ez da gauza handirik gertatu.



Gregorio Domingo
(41 urte)
Langilea

Ez dakit, larregikoa izan den, edo neurri egokiak haritzeagatik ez den ezer gertatu.



Andoni Zubiaga
(31 urte)
Langilea

Zenbaitek etekin ekonomiko handia atera du. Publizitate handia egin diote, eta jendeak asko inbertitu du ondorioak saihesteko.



Elena Trojaola
(39 urte)
Langilea

Larregiko neurriak hartu direla uste dut, azkenean ez da ezer gertatu eta. Bat edo batenzat negozioa izan da.




Maitane Muñoz
(15 urte)
Ikaslea

Nire ustez neurri gehiegi hartu da eta norbaitek asmatutako gauza bat izan da, dirua ateratzeko edo.



Gorka Colmedo
(20 urte)
Ikaslea

Gehiegikeria izan da. Neurri gehiegi hartu dira eta azkenean ez da ezer gertatu.



MARKO-JARTZEAK
ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

14
ostirala

■ ZINEA

Mickey Ojos Azules, 19:00 eta 21:30, Alai zineman.

■ MARGO ERAKUSKETA

Koldo Gojenolaren margo erakusketa dago Toki Eder kafetegian, hilabete osoan zehar.

15
larunbata

■ ZINEA

El Gigante de Hierro, 17:00, eta *Nadie Conoce a Nadie*, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

■ PAILAZOAK
ARETXABALETAN

Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoek ikuskizuna eskainiko dute. Sarrerak aurrez egongo dira salgai, kultura etxean, ludotekan eta kirol etxean, 500 pezetan. Saioa kirol etxean izango da, 17:00etan.

16
igandea

■ ZINEA

El Gigante de Hierro, 17:00, eta *Nadie Conoce a Nadie*, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

■ BATZAR OROKORRA

Al Andalus kultur elkar-teak urteko batzar orokorra egingo du. 10:00etan izango da lehen deialdia eta 10:30ean, bigarrena. Gai zerrendan iazko balantzea, aurtengo egitaraua betetzeko aurrekontua eta zuzendaritzako kideen aukeraketa dira punturik aipagarrienak. Batzarra Al Andalus elkartearen egoitzan izango da.

Bittor Guridiren omenez

Igandean, hilak 16an, goizeko 11:00etan Bittor Guridi Agirreurreta mendizale mondragoetarraren errautsak zabalduko dituzte Udalatx gainean. Hori dela eta, Besaide mendizale taldeak Bittorri azken agurra emateko asmoz han egoteko deia egin du.



X Bataioak, jaunartzeak, enpresa bazkariak eta lagunartekoak

X Karta eta menu berezien zerbitzua



DENBORALDIKO PLATERAK, GIRO ONENEAN

BASTER-ALDE

J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABALETA

Tel.: 943 79 24 58

LAN ESKAINTZA

Arrasateko udalak aldi baterako lanpostu hauek bete nahi ditu:

Enplegu teknikari bi (egun erdiz)

Oinarriak: Udaletxean jaso daitezke
Eskaera aurkezteko epea: 00/01/24a arte, berau barne.



ARRASATEKO UDALA

Enplegu saila ■

17

astelehena

■ ZINEA

Nadie Conoce a Nadie,
19:00 eta 21:30, Alai zineman.

■ PERKUSIO IKASTAROA

Iñaki Bruñaren perkusio ikastaroan izena eman nahi baduzue, baduzue aukera oraindik. Gazteluondo ikastolan, astelehenetan, 18:00tatik 21:00tara.

■ DANTZA IKASTAROA

Ekin emakume taldeak dantza ikastaroa eskaintzen du. Urtarrilaren 10ean hasi zen, baina garaiz zaudete oraindik izena emateko. Apirilaren 10era arte izango da, 15:00etatik 16:30etara, Ekin emakume taldearen egoitzan. Argibide gehiago: 943 77 12 28 telefonora.

■ ETXEKO ARDURAK BANATZEN

Emakume eta gizonezkoentzat etxeko hainbat lan motatako saioak antolatu ditu Emakume Sailak. Matrikulak 2.000 pezeta balio du. Otsailean eta apirilean izango da ikastaroa, 18:00etatik 20:00etara. Argibide gehiagorako, 943 79 09 00 zenbakira deitu.

■ TERMALISMO PROGRAMA

Inersok termalismo programa ireki du, irailetik abendura bitarterako. Interesatuok jo Udaleko Gizarte Zerbitzuetara. Maiatzaren 16ra arteko epea.

■ MERKATARIENTZAKO INFORMATIKA

Merkatariei zuzendutako informatika ikastaroa izango da, GATCen eskutik. Matrikula 5.000 pezeta kostatzen da, eta Consultec enpresak emango du eta denden ordutegitik kanpo izango da, urtarrilaren 17tik 28ra bitartean.

■ TXALAPARTA ETA ALBOKA, LASTER

Bi ikastaro hasiko dira laster, oraindik data finkatzeke badago ere. Bata, txalaparta ikastaroa izango da, Musakolako parrokian, otsailaren 11tik aurrera ziur aski. Ordutegia, ostiraletan 20:00tatik 22:00etara, eta zapatuetan, 10:00tatik 12:00tara. Bestea, alboka ikastaroa, urtarrilaren 29an hasita seguruenik. Arrasate Musikalen izango da, 10:00etatik 13:00etara. Bietarako izenematea, Gazte Bulegoan. Dena dela, egunetan aldaketarik balego, jakinaraziko du udalak.

■ MENDI ESKIA

Besaide Mendizale Elkar-teak mendi eski travesia ite- era antolatu du, Tena Baila- rara. Federatua egon beharra dago. Irteera urtarrilaren 22an izango da, eta izena ematea, astelehen eta astearte hone- tan, 19:30tatik 20:30tara, Besaideren egoitzan. 1.000 pezeta kostatuko da.

■ ESKULANEN IKASTAROA

Ekin Emakume taldeak eskulanen ikastaroa antolatu du. Urtarrilaren 18tik apirilaren 11ra bitartean, Ekin Emakume taldearen egoitzan, Pablo Uranga kalean, asteartero 15:30-17:00 eta 18:00-20:00.

Irakaslea Mila Akizu izango da eta izen ematea elkartearen bertan egin daiteke (15:00-19:00).

18

asteartea

■ ZINEA

Nadie Conoce a Nadie,
19:00 eta 21:30, Alai zineman.

20

osteguna

■ ZINEA

*La Lengua de las Mari-
posas*, 19:00 eta 21:30, Alai
zineman.

HIES
EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiraletan
5etatik 8etara.
Tel.: 943 79 26 99

Sagardotegia



ITURRIETA

Arriaga auzoa
Tel.: 945 44 53 85
ARAMAIO

USTEAK USTE

Uste ona

Konfiantza zuen Bittor Guridik bere buruarengan. Behin baino gehiagotan joan zen mendira bakarrik, eskiatzera. Gabonetan ere horixe egin zuen, baina ez zen gabon zahar egunerako etxera itzuli. Etxekoek ere konfiantza zuten beregan, baina oraingoan halabeharrik jokaldi txar bat egin zien.

Arriskuari aurre egiteko konfiantza izatea ona da, baina gehiegi fidatzeak ez du laguntzen.

Oñatin ere beste arrasatear bat hil zen urte hasieran, Josu Benito. Lanean ari zela, zama gainera erorita hil zen. Lanera segurtasunez joan eta hilik gertatu zen. Lan baldintza desegokiek heriotza ugari eragiten dute Euskal Herrian. Badirudi konfiantza gehiegi dugula eta asko kostatzen zaigula behar diren neurriak hartzea.

Baikorrak izatea ona da bizitzan aurrera egiteko eta uste ona izatea ere bai. Baina, batzuetan gehiegikerietara jotzen omen dugu. Hala ere, izan dezagun konfiantza aurrera egiteko gai garelako erakusteko.

Marijo Deogracias



Zahartzen ikastea

* Pepa Bojo

Irailaren amaieratik abenduaren erdira arte, "Zahartzen ikastea" lantegia egin zen Arrasaten.

Guztioi axola zaigun gai hau baliteke oso erakargarri ez izatea. Ez dugu zahartzen ari garelako onartzen. Horrexek erakusten digu zer den gure gizartean zahartzea, ikastaroko emakume batek zioen bezala: zahartzeak ez du lekurik.

Bakartu egiten ditugu zaharrak, ez dira produktibokak. Gure gizarteak gazte izatea, indarra, erakargarritasuna baloratzen ditu eta gainerako guztia ukatzen du. Zaharroi ez digu iritzirik eskatzen: ez dugu parte hartzen gizartean.

"Zahartzea" berbak berak ere beldurtu egiten gaitu. Zentzu gutxiesgarria hartu du, eta badakigu gure bizitzaren beste etapa bat baino ez dela. Kontzeptu horretan sartzen duguna zera kulturala da, eta esangura negatibo edo positiboz bete dezakegu.

Zahartzaroan esperientziak jakinduria ematen

digu, gauzak hobeto ulertzen ditugu, erlatibizatze gaitasuna hartzen dugu e.a. Balio bakarrak dituen aldia da. Edertasun berezia dago, nahiz eta horrekin konturatze "betaurrekoak" erantzi. "Danone" gorputzak miresten dituen gizarte konpetitibo honek horietxek saldu dizkigu.

Agian gizarte ereduak jarri behar ditugu zalantzan eta etapa bakoitzak duen berezko hori eskatu behar dugu. Zahartzaroa beste bat gehiago da eta bakoitzaren onena erabil daiteke. Ez dago zalantzarik hori guztia izateko bizi kalitatea behar dugula eta egoera fisiko eta psiki-

ko egokiak izan behar ditugula.

Horri buruz hausnartzea, beldurrak eta ikarak elkarren kontra jartzea eta baliabideak ikastea, gure ongizaterako eta pertsona baliagarriak garelako pentsatzeko helburua zuen lantegiak. Ondorio gisa, hona hemen parte hartu zuten emakumeek iritziak eta baloratu zituztenak:

- Gaur egungo gizarteak edertasuna baloratzen du, beraz zahartzaroaz hitz egitea oso zaila zaigu.

- 50 urte bete ditugunok bestelako edertasuna dugu: bizitzak eman digun esperientzia.

- Ikastaroan zahartzen ikasi dugu. Etorkizunerako, nola prestatu fisiko eta mentalki? Eredu on bat edukitzea ezinbestekoa da: ariketa fisikoa, elikadura orekatua, estresa kontrolatzeko erlajazioa, gustuko ditugun gauzak egitea, lagunekin ditugun harremanak sendotzea, ekonomikoki babestua egotea, autoestima baikorra izatea, beste eskaerei mugak ipintzea edo ezetz esaten ikastea.

- Menopausia eta sexualitatea gaiak ere jorratu ditugu. Ezer baztertua geratu ez dadin heriotzaz ere hitz egin dugu.

- Jadanik konturatuko zarete zein interesgarria izan den: beraz beste batean, kontuan izan eta tituluari kasu egin gabe, lehenbailehen apuntatzea da gure aholkua.

* Psikologoa eta sexologoa

“ 50 urte bete ditugunok bestelako edertasuna dugu: bizitzak eman digun esperientzia ”

Pando
ERROTULOAK
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabilioia)
Tel. / Faxes: 943 79 79 70

Lore

- Lurrindegia • Kabina •
- Fotodepilazioa •

Olarte kalea, 10 • ARRASATE Tel.: 943 79 52 50

Arrasate

LANAK

OBENERREKAN


Aldagain eta Santamaina bitartean oinezkoen pasabidea egiten ari dira oraindik.

GAZTELUONDON

Etxe bat botatzen ari dira Gazteluondo inguruetan.

OLARTE


Saneamendu lanak



Biztanleak: 24.257
Eremua: 33 Km²
Garaiera: 211 metro

Eguraldiaren aurreikuspena

Donostiako Metereologia Zentrua



OSTIRALA 14



LARUNBATA 15



IGANDEA 16

Laino ugari izango ditugu eta euria egingo du. Tarteka txingorra ere egingo du. Goiz partean izotza egingo du.

Euria egingo du eta elur maila 600 m.etan kokatuko da. Goiz partean izotza egiten segituko du. Kontuz, beraz, errepideetan.

Elur maila igo egingo den arren, 700 m.ra, euri arriskua izango dugu. Tenperatura ez da aldatuko.

Ilargia



Ilgora

Urtarrilaren 14an ilgora izango da.

Mezak

Parrokia

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean:

09:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz)

12:30 (elebiduna)

San Frantzisko

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean:

09:00 (euskaraz)

10:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

19:00 (elebiduna)

Uribarri

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean:

11:30 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

San Andres

Ostiralean

18:30 (Otoitz ordua)

Larunbatean

18:30 (Bezpera abestiak)

19:00 (elebiduna)

Igandean

10:00 (erdaraz)

11:00 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

Santa Teresa

Larunbatean

19:00 (elebiduna)


Igandean

10:30 (erdaraz)

11:30 eta San Isidron (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

Urkuluko uraren maila %75,3



Urteurrena

Orain dela urtebete *Arrasate Pressen*:

- Urtarrilaren 11n elurra egin zuen Arrasaten. Udalak 4 cm.ko elurra eta Bedoñan 4,5 cm.
- Euskadiko Kutxak 1998an izandako irabazien berri eman zuen: 1a 20 mila milioi.
- Jabier Letona aurkeztu zuen Mondrak, futbol talde nagusiko entrenatzaile berri lanetarako.

astea bi hitzetan

■ Rokodromoa Uarkapera

Otsailerako prest izango da rokodromo berria. Musakolako rokodromoaren egitura zaharra dela eta, Uarkape udal pilotalekuan kokatuko da berria. Halaxe erabaki zuen AUKEAK Besaide elkartearekin eztabaidatu eta gero.

Gimnasioaren azpian jarriko da rokodromoa eta 3 metro garai eta 20 metro zabal izango ditu. Diseinua Besaide elkarteak egin du; lanak, berriz, Zuntz enpresak egingo ditu 2 milioi pezetako aurrekontuarekin.

■ Sustoa harrobiarekin

Pasa den astelehenean susto galanta hartu zuten Fagor Arrasateko langileek. Burrundara bat entzun zen eta segidan kristal hotsa, zer-

baitek Fagorren eraikina kolpatu zuelako.

San Josepe harrobia izan zen guztiaren eragilea. Izan ere, egun horretan, bestetan moduan leherketa bat egin zen harrobian, baina dirudienez, harriak uste baino urrutiago atera eta Fagor Arrasate lantegiaren eraikineraino iritsi ziren.

San Josepe harrobiko kudeatzailearen esanetan, bestetako moduan, leherketa hori egiteko Eusko Jaur-laritzako baimena zuten, eta leherketa guztiak bezala, kontrolatuta zegoen. Dirudienez, baina, harrobian aurreikusitako neurriak ez ziren nahiko izan. Gertatutakoa ikusita, hurrengo baterako harrobiak bestelako neurri batzuk hartu beharko dituela gaineratu zuen ber-

tako kudeatzaileak.

■ Arrasatear mendizalea hilda

Urtarrilaren 2an Bittor Guridi Agirreurreta mendizalea hilda aurkitu zuten Huescako Anayet mendian. Mendiko eskia egiten ari zen eta mendi ertzaren egoera zein zen ikustera joan zenean, elur jausiak harrapatu zuten. 39 urte besterik ez zituen. Herritar asko joan zen San Frantzisko elizara Bittor Guridiri azken agurra ematera.

Bestalde, igande hone-tan Bittor Guridiren errautsak Udalaizten jaurtiko ditu Besaide mendizale elkarteak. Honela, Bittorrek betirako hartuko du atsedean, Udalatxan, hainbeste maite zuten mendiaren megalean.



■ Errepide mozketak

Gose greban dauden euskal presoek elkartasuna adierazi asmoz, abenduaren 5ean 11 lagun elkarrekin kateatu eta errepidea moztu zuten Eroski parean. 40 minutu inguruz hantxe izan ziren, Ertzaintza etorri arte. Ertzainek 11 lagunak identifikatu zituzten, baina ez zuten inor atxilotu.

Katealdiak iraun zuen 40 minutuetan, amnistia aldarrikatzen zuen pankarta eskegi zuten protesta gisa. Era berean, auto ilara luzeak sortu ziren denbora tarte horretan. Protesta hasi eta 10 minutu, Aretxabaletaraino iritsi ziren auto ilarak.

“ Kooperatibei buruzko berri ugari ari zaizkit iristen azkenaldian. (...) Garbi dagoena da (Larrun aldizkarian) ezer ez dagoela garbi. Hortxe dago Tafallako Luzuriaga lantegia ere. Duela urte mordoak Victorio Luzuriagak Pasaiatik hara eramana, sindikalista borrokalarien habia izandakoa, mila arazoren ondoren azkenik MCCk erosi zuena. Gaur egun kooperatiba-taldea da bertako enpresari, eta langileak, berriz, soldatapeko huts; eta gatazka etengabean ari dira, gainera. Orain hilabete gutxi 130 langile kaleratzeko plana aurkeztu zuten enpresak, ondoren, presioen ondorioz edo, atzera bota badu ere.

Nik ere Euskadiko Kutxan daukat nire kontu korrontea, Lagun Aroekin autoaren aseguruua. Jatortzara delakoa edo. Jatortzara, ordea, egunero erakutsi behar da, eta arazoan aurrean batez ere’.

XABIER MENDIGUREN ELIZEGI

Euskadunon Egunkaria
2000.1.8

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tel.: 943 79 13 78

beatriz

*oinetakoak
eta poltsak*

Erdiko kale, 11
Tel.: 943 79 14 33
ARRASATE

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tel.: 943 - 77 10 95
ARRASATE

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tel.: 943 79 91 84

ARETXABALETAKO

Larrialdi egoerei aurre egiteko udal plana

Arrasateko Udalak larrialditasun plana estreinatu du, hondamendi handiak gertatzen direnerako. 20.000 bizilagun baino gehiago dituzten herri guztiek behar dute horrelako plan bat.

Jose Luis Etxebarria udaltzainburuak hiru-lau hilabete behar izan ditu plan hau idazteko. Honen helburuak hauek dira: larrialdietarako prozedurak ezarri, autobabesa bultzatu, arriskuak antzeman, prebentziorako neurriak zehaztu, herritarrak jakinaren gainean jarri eta Euskadiko Lurralde Babeserako Planarekin koordinatu.

12 EGOERA AURREIKUSITA

Hondamendia ekar lezaketan 12 egoera aurreikusten ditu planak, tartean lur jausiak, uholdeak, elurteak, suteak, jarduera industrial arriskutsuak, izurriteak eta gai arriskutsuen garraioa, besteak beste.

Uholdeen kasuan, esate



Jose Luis Etxebarria, "Porru", aritu da larrialdi plana prestatzen.

baterako, txostenak arrisku handiko hainbat gune zehazten ditu, hala nola, Muxibarko plaza, San Isidro elizaren aurreko aldea, Maalako Errabala, Fagor San Andres. Leku bakoitzean zehaztu egiten dira zein etxe edo bide dauden arriskuan eta zein irtenbide erabili.

Bestalde, suak, adibidez, etxe pila erreko balu, planak hainbat leku zehazten ditu kalteak aterpetzeko: Musakolako eta Iturripeko kiroldegiak, Monterron jauregia, San Fran-

tzisko Xabier ikastolak Ferixalekuan, Gazteluondon eta Uribarrin dituen eraikinak eta S. Andres, Erguin eta Musakola herri eskolak.

Planak "krisi kabinete" bat ezarri du horrelako kasuetarako. Alkateak, lehen aldatordeak, Udal Zerbitzuetako buruak, udaltzainburuak eta hainbat teknikarik osatzen dute krisirako batzordea. Egoera neurtu eta neurri egokiak hartzea da bere eginkizunik nagusia.

Urteko lehena



Hauxe duzue 2000. urteko lehenengo mondragoetarra. Carla Horrillo Badillo izena du eta urtarrilaren 3an jaio zen gaueko 22:27 zirenean. 2'925 kilo pisatu zuen eta gurasoen esanetan, formal-formala da. Zorionak!

Gripea atzeraka

Eskualdeko Ospitaleko Jesus Monjelos mediku buruak adierazitakoaren arabera, iazko datuekin konparatuz gero, aurtengoa gripa bi astez aurreratu zaigu eta gaixo kopurua bikoiztu egin da. Hala ere, badirudi birusa gugandik aldentzen hasi dela. Dena dela, ezin da ziurtatu datozen asteotan ez ote den piztuko.

Gripeak iraun artean, Debagoieneko ospitalea gainezka egon da. Hori dela eta, ospitaleko mediku buruak gomendatu du gripear aurre egiteko biderik zuzenena atsedean hartzea dela, likido ugari edatea eta antitermikoak edo kalenturaren aurkako sendabideak erabiltzea.

Era berean, eskatu du ospitalera etorri barik, jendeak bailarako herrietan dauden ambulatorioetara jo dezala gripa sendatzera. Familia medikuarengana edo gau eta eguneko zerbitzuetara joatea da egokiena.

Lanerako segurtasun eske

Lanerako segurtasuna eskatzeko kale bilkura egin zen asteazkenean Oñatiko Txintxurreta enpresaren aurrean LAB, ELA eta ESK sindikatuek deituta. Laneko arriskuak saihesteko neurriak eskatu zituzten bildutakoek, joan den astean Jon Josu Benito gazte arrasatearrari zama bat erori eta ezbeharrez hil ondoren.

Gertaera tamalgarri honek protestak eragin ditu, kontuan hartuta, Oñatikoa laneko istripuek eragindako aurtengo lau garren heriotza izan zela.

Langileen osasun plan-



gintza betetzea eta horretarako baliabideak ipintzea eskatu zieten erakundeei bildutakoek. Partaideek Txintxurretako bidegurutzea eten zuten. Lantegiaren aurrean amaitu

zen bilkura.

Jon Josu Benitoren familiak salaketa jarriko dio enpresari. Gauza bera egingo du CCOO sindikatuak akusazio partikular moduan.

Jaiotzak

- Asier Errasti Jauregi. Abenduaren 25ean.
- Unai Delgado García. Abenduaren 25ean.
- Iñaki Azkarraga Urizar. Abenduaren 26an.
- Iñigo Martiarena Zubigaray. Abenduaren 27an.
- Peru Rozas Lizarralde. Abenduaren 29an.
- Lierni Axpe Cobos. Abenduaren 31n.
- Carla Horrillo Badillo. Urtarrilaren 3an.
- Ane Guridi Viamonte. Urtarrilaren 5ean.

Ezkontzak

- Rafael Sánchez Sánchez eta Justa Sánchez Tena. Urtarrilaren 3an. Zibilez.

Hildakoak

- Maria Josefa Balenciaga Jauregi. 88 urte. Abenduaren 24an.
- Alejandra Uribeberria Albizu. 85 urte. Abenduaren 26an.
- Julia Oñate Marcilla. 95 urte. Abenduaren 28an.
- Antonia Blanco Rodríguez. 81 urte. Abenduaren 29an.
- Pablo Marcos Pérez. 87 urte. Abenduaren 31n.
- Joaquín Azpiroz Hernáez. 92 urte. Urtarrilaren 1ean.
- Andres Garay Arregi. 80 urte. Urtarrilaren 5ean.
- Santiago Manuel Garay Iribekano. 90 urte. Urtarrilaren 6an.
- Luis Ayala Zabala. 81 urte. Urtarrilaren 7an.
- Kristina Lasagabaster Okina. 98 urte. Urtarrilaren 10ean.

Zerrajerako fundizioa ez dute botako

Union Cerrajera enpresako fundizioa ez botatzea erabaki du Mondragoeko Udalak, balio arkitektoniko handia baitu eraikin honek. Ez botatzeaz gain, dagoeneko hasi dira eraikina desmontatzen geroa begira Industriaren Museoa oren barruan gorde ahal izateko.

Desmontatu eta gero, zelai batera eramango da burdinazko egitura. Antton Elizegik dauka lan horien ardura, berak egin baitu udalarentzako ikerketa.

1928. urtekoa da Zerrajerako fundizio zaharra. Garai hartan burdina erabiltzen hasi ziren eraikinetan eta benetan eraikin ikusgarriak egin zituzten, Parisko Eiffel dorrea, adibidez. Esan beharra dago Mondragoeko Zerrajerako fundizio zaharra eta Parisko dorrea teknika bera erabiliz eraiki



20. hamarkadakoa da Zerrajerako fundizio zaharra.

zirela.

Mondragoeko eraikinean ia 10 metro daude zutoin batetik bestera. Luzeran, berriz, 90 metro neurtzen

du. Erakina "L" itxurako burdinazko xaflaz egin dago eta garai horretan soldadurarik egiten ez zenez, elkarrizketaz torlojuz itsatsita daude burdinak.

Baraualdiak eta itxialdiak presoan alde

Xabier Zubizarreta Mondragoeko alkateak astebeteko baraualdiari ekin zion pasa den astelehenean. Euskal Herritarrok taldeko beste 25 alkaterekin batera, Altsasuko udaletxean bildu dira baraualdi honen bitartez euskal presoan Euskal Herriratzea eskatzeko.

LAB ERE BAI

Arrasateko alkateaz gain, LAB sindikatuko eskualdeko ordezkariak ere euskal presoan aldeko itxialdia egin dute Bergarako udaletxean.

Pasa den astelehenean hasi ziren eta gaur bukatuko dute. Guztira, LAB sindikatuko 60 kide inguru pasatu dira udaletxetik aste honetan, egun bakoitzean hamar lagun inguru.



LABeko 60 ordezkariak egin zuten itxialdia.

Itxialdia egiteaz gain, baina, bestelako ekintzak ere egin dituzte sindikatuko kideek. Goizetan eta arratsaldetan karteladak, euskal presoek gutunak idazten aritu dira eta ordezkarien arteko eztaibaidak ere egin dituzte.

Honetaz gain, Garbiñe Aranburu LABeko orde-

kariak adierazitakoaren arabera, datorren urtarrilaren 27ko greba orokorrarekin bat egiten du sindikatu aber tzaleak. Era berean, asteazkenean Aranburuk gogora ekarri zuen Iñaki Arietaleanizbeaskoa "Bizkai" preso bergararrak 42 egun egin dituela gose greban eta dagoeneko 21 kilo galdu ditu.

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10-1 ☎ 943 77 13 34

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ☎ 943 77 05 57

DIETETIKA ETA NUTRIZIOA

- LOREA ARAMBURU Dk. Instituto mediko palacio mendia. Erdiko Kale, 22-1 ☎ 943 79 72 16

FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA. BASTERRETXEIA Errehabilitazio Zentrua Olarte 43 Bis ☎ 943 77 03 96

GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Quiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ADUR odontologia institutu medikua Iturriotz, 35 ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPIZKOAKO odontologia espezialitateen zentrua. Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ☎ 943 77 12 63

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ☎ 943 79 89 34

OSTEOPATIA

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lumbalgiak) Azoka kalea, 4 (Mobila) ☎ 989 58 66 89

OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO D.reak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea ☎ 943 79 20 18

PSIKOLOGIA

- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

TRAUMATOLOGIA

- ARSEÑO DIEGO GARCIA (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

Txikilandia, gabonetan tx

2000.urte sonatuak Txikilandiaren urteurren garrantzitsua ere ekarri du, hamargarren aldia izan baitu aurten haurren gabonetako parkeak. Hasiera batean Arrasateko Udalak zuen parkea antolatzeneko ardu-

ra, Aukea-ko eta Arrasateko Udaleko Euskarara, Gazteria eta Kultura saileko ardudunak ekimenez sortu baitzen. Dagoeneko badira sei urte Txatxilipurdik elkarteak antolatzen duela, ordea.

entzat egokitu dute, kafea hartzeko zerbitzu eta guzti. Hirugarren gunean eskulanetarako duten trebezia lantzeko parada izan dute gaztetxoek, bertan era guztietako tailerrek kokatu baitituzte. Txikienak "Txikitxokoan" aritzen ziren bitartean nagusienek mikadoak, atabalak... egingen zituzten. Teknologia berrien zaleentzako ere egokitu dute txoko bat, lau ordenadoreekin, eta ileapaindegian ere aritu dira zenbaitzuk, bata bestea orrazten. Bestalde, badira zenbait haur Txikilandiara egunero joaten direnak, eta horientzat tailer aldakor bat ezarri dute antolatzaileek, egunero gauza berriak egin zituzten. Txapak, globoflexiako globoak, txotxongioloak... egin dituzte bertan. Igerilekuetan kokatu dute laugarrena, eta mota guztietako ur jolasekin blai amaitu du guraso batek baino gehiagok, bainujantzi eta guzti. Seigarren gunea ikuskizunetarako egokitu dute, eta zazpigarrenean kirolak izan dira nagusi: eskalada, karsak, auto tele-



Txatxibusak Arrasate eta inguruak zeharkatu zituen.

Bi mila haur eta guraso inguru pasatu da aurten Musakolatik urtarilaren 2,3,4 eta 5ean. Izan ere, hantxe egon da aurten ere jada urterokoa bilakatu den gabonetako parkea. Hasierako hiru egunetan goizeko hamaiketarik eguerdiko ordu bietara eta arratsaldeko lauretatik iluntzeko zortziretara egon da zabalik. Azken egunean, berriz, goizez bakarrik ireki ditu ateak Txikilandiak.

HELBURUAK

Jon Garaik, Arrasateko Udalean Kultura saileko teknikari denak, burubelarri hartu

zuen parte Txikilandiaren sortze prozesuan: "Euskararen gaia presente izan genuen hasieratik, eta begirale euskaldunak nahi genituen. Hori guztia, haurrei gabonetan eskaintza ludiko bat eginez".

Parkearen prestakuntza kultura sailaren esku gelditu zen gero, duela sei urte Txatxilipurdik hartu zuen lekukoa.

SEI GUNE

Sei gunetan banatu dute aurtengo Txikilandia. Lehenengo gunean puzgarriak jarri dituzte: salto egitekoak, baloi handi batekin futboleko jokatzeakoak, norbera gerrikoaz lotu eta pilota bat harrapatze-

ko puzgarria, zezen mekani-koa... Bigarrenengo seme-alabekin bertaratu diren guraso-



Txan Handia ere Txikilandian izan zen.

...kienen gozamenerako



Auto telegidatuak ere bazeuden.

gidatuak... Dena dela, karaoke eta aurpegi margoketarik ere ez da falta izan, eta Txan magoaren bisita ere izan dute.

TXATXIBUSA

Autobus zerbitzua ere eskura izan da Txikilandiak iraun duen lau egunetan, "Txatxibusak" (horrela jarri baitiote izena Txikilandiako autobusari) ingurune herri eta auzo guztiak zeharkatu ditu eta: Aretxabaleta, Eskoriatza, Ara-

maio, Gesalibar...

Londonetik ekarri dute Txatxibusa, azken bost urteotan bezala. Lau egunerako alokatzen du Txatxilipurdik, Txikilandiak iraun bitartean hain zuzen ere. Urtero jantzia aldatzen diote gainera autobus berezi honi; aurten, esate baterako, horiz margotu dute.

AURREKONTUA

Ia sei milioiko aurrekontua izan du aurtengo gabonetako parkeak. Arrasateko Udala izan da babeslea, baina beste hainbat laguntzaile ere izan ditu. Izan ere, gastu ugari daude: begiraleen soldatak, puzgarri eta gainerako atrakzioen alokairuak, kiroldegia eta autobusaren alokairuak... Eider Otxoak izan du Txikilandia antolatzeko ardura nagusia. Lan handia izan du, dudarik gabe: "orain bi hilabete hasi nintzen Txikilandiaren plangintza egiten, eta publizitate bila hasi ginen gero. Bildutako diruaren arabera ekintzak zehaztuz eta prestatuz joan gara eta begi-

rale taldea bildu dugu ondoren. Azken astea, berriz, muntaiarako izan da".

Baina beste hainbatek ere gogotik egin behar izan dute lan jolas parkea aurrera ateratzeko. Jolastokiko ardura, adibidez, Itziar Bartolomek hartu du bere gain, eta horrez gain hiru teknikari, 45 begirale inguru eta kiroldegiko langileak aritu dira beharrean.

TXIMELETAK NAGUSI

Duela bi urte kiroldegia amantalgorritz apaintzea bururatu zitzaizen antolatzaileei, eta orduz geroztik motibo nagusi baten inguruan antolatzen dute jolasparkea. Iaz arte Iban Astondoak egin izan ditu hormirudiak, eta bere ideien arabera antolatzen zuten dekorazioa. Dena dela, aurretik Imanol Morenok ere egin zituen zenbait hormirudi.

Iaz dragoiak jarri zituzten bazter guztietan, eta ertaroko kutsua eman zioten Txikilandiari. Tailerren gunea gaztelu bihurtu zuten, eta dragoiak bataiatu egin zituzten gainera: "Tomasito" jarri zieten izena. Aurten, berriz, tximeletak jarri dituzte gidari gisa. Danel Goikolea izan da dekoratzaile nagusia, baina hainbat laguntzaile ere izan ditu

"tximeletagintzan". Eta ez dute lan makala egin gainera, hilabetez aritu baitira pinpilinpauk egin eta egin.

BALORAZIOA

Antolatzaileak oso pozik azaldu dira parkeak bere hamargarren urtebetetzean izan duen harrerarekin. Haur eta heldu, seme-alaba eta guraso, bi mila pertsona inguru pasatu direla jakinarazi digute. Guztiek ere 600 pezeta ordaindu behar izan dute sarrera. Goizerako eta arratsalderako balio izan du eguneko sarrerak, baina horretaz gain, bonoak ere jarri dituzte aukeran, asko baitira parkera egunero joan nahi izaten dutenak. Bono horiek 1.700 pezetaren truke egon dira eskuragarri.

Adinari dagokionez bizpahiru urtetik hamabi urtera bitarteko gazteengana heldu nahi izan du Txikilandiak. Horixe aitortu digu Eider Otxoak, arduradun nagusiak: "bi urtetik hasi eta hamaikahamabi urte arteko gazteei begira egokitu ditugu gunek. Horixe da, gainera, Txatxilipurdiren adin tartea haurretan. Gazteentzat ere antolatuko genituzke kontzertuak edo, baina kiroldegian ez da lekurik".

Gazteenentzat gabonetako jostailu handia bihurtu da Txikilandia. Hamar urte bete ditu, eta beharbada gaur egun jolastera joaten diren haurrak beren seme-alabekin gerturatuko dira jolasparquera etorkizunean. Urte askotarako, Txikilandia! ■

Maidor Osa



Guraso asko gerturatu da jolasparquera haurrekin.

**Euskararen gaia
presente izan
genuen hasieratik,
eta begirale
euskaldunak nahi
genituen**



50 URTE ELKARREKIN

Daniel Arizabaletak eta Dolores Etxebarriak urtarilaren 7an urrezko ezteiak ospatu zituzten familia osoarekin batera. Zorionak, bikote!!!

JOLAS ETA JOLAS

Gurasoak lasai, txikiak gustura. Horrelaxe labur daiteke aurtengo Txikilandia jolas parkearen ibilia. Edozeinen gustua betetzeko adinako ekintza aukera eskaini du parkeak. Batzuk puzgarrietan salto eta salto, besteak eskulanean, hangoak igerian... eta izan dira, lotsa alde batera utzita, kantalditoxa eskaintzera animatu direnak ere. Zelako inbidia!



EUSKAL KOTILOIA

Zaharberri egitasmoko lagunak joan den urtea agurtzeko bildu ziren abenduaren 30ean. Euskal askari batekin agurtu zuten urtea. Menua: sagar erreak eztiarekin eta morokila. Lekua: AEDren egoitza. Giroa: ezinhobea eta, noski, euskaldun-euskalduna. Ez dago gaizki, ezta?

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
• Sukalde altzariak
• Armairu enpotratuak
• Trastelekurako armairuak
Fabrikari erakusketa
Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

TTUKUN
Fotokopiak
Liburu jostekak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

M ARENAZA
Altzariak
Diseinua
Apainketa
Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07



BADATOR BARREBUSA!

Hain irribartsu dauden horiek, Kike Amunarriz eta Naiara Gorroño dituzue. Biak dira Barrebusa programaren ardura-dun. Hainbat denbora kameraren aurrean lanean jardun ondoren (bata ETBn eta bestea Arrasate Telebistan), orain beste aldera pasatu dira. Kike programaren zuzendaria da eta Naiara ekoizle laguntzailea. Barrebusen etorriko dira datorren astelehen eta asteartean, eurenak bezalako irribarre ederrak banatzera.



GOIKOBALU TXIKI LAUGARREN

Herriko abesbatzako gaztetxoek laugarren geratu dira aurtengo Erreteriko Gabon kanten lehiaketan. Abenduaren 26an izan zen abesbatzen arteko lehiaketa. 53. aldia izan da aurten-goia eta zortzi talde aurkeztu dira. Urtero moduan, Erreteriko Ereintza elkarteak antolatuta du txapelketa hau. Zorionak, Goikobalu!!!

VATICANOTIK ARRASATERA

Denbora luzean zoritxarra lagun izan ondoren, eta familia osoa ezbehar batean galdu eta gero, urtebete-ko ibilbide luzeari ekin zion Manu Jimenezek. 50 urteko gizon honek, Vatikanotik bueltan geldialdia egin zuen Arrasaten, hemendik Donostiara segitzeko asmoarekin.





ERREGE MAGOEN BISITA

Guztiak pasa ziren Arrasatetik, poza eta opariak banatzera: Txoronpio eta Txoronpia, Bizar Zuri, Olentzero... eta Errege Magoak. Ekialdetik abiatuta, urtarrilaren Sean iritsi ziren herrira, eta jende dezente irten zen kalera ongi etorria ematera.

Jaiotzan zegoen Jesus Haurtxoa gurtu ondoren, nahikoa lan izan zuten Magoek, etxez-etxe ibili baitziren. Euren esanetan, Mondragoeko umeak oso zintzoak dira eta opari asko utzi zuten.

Katekesiko umeek marrazki

lehiaketa bat egin zuten, Meltxor, Gaspar eta Baltasarrren bisita gaitzat hartuta. Irabazleak, ondoko hauek izan ziren: Alex Altuna, 7 urte; Elena Arriola eta Mikel Uribarren, 8 urte; eta Naiara Zabala, 9 urte.



Argazkia: Jon Orzaeta

AGUR ETA ONGI ETORRI!

AED, Euskalan, Zahar-Berri, Emun, Txatxilipurdi... oro har, Arrasaten euskararen alde lan egiten duten elkarteetako 35 bat bazkide bildu ziren abenduaren 19an. Hiru urtez AEDko idazkaria izan den Jasone Mendizabali behar bezalako agurra emateko bazkaria antolatu zuten Sarako merenderuan. Eta, bidebategi, Jasoneren ordezkari ongi etorria emateko aprobetxatu zuten. Ander Elortondo da bera. Ez da hasteko modu txarra!



AGR
DEKORAZIOA

Zoruak • Lijatu eta barnizatuak •
Erradapiak • Leihoak • Ateak •
PVCko leihoak •
Aluminiozko leihoak •
Eskailerak • Armairu enpotratuak...

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20



Danona

KARROZERIAK

Konponketak, txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

FUTBOLA Berdinketa hasteko



Lehen errejionaleko Mondrak berdinketarekin agurtu du urte berria. Ilintxaren aurka bina berdindu zuen Juaninaren hamaikakoak. Bi linier ere egon ziren partidan; lehendakariak esan digunez, lehen aldia da, baina "etorri ez balira ere, antzera izango zen" baieztatu zigun Jose Luis Ezkurrak. Lehen zatia nahiko ahula izan zen. Bigarrenean, Mondrakoek ez zituzten aukera guztiak aprobetxatu.

Aste honetan Elgoibarreara abiatuko dira Juaninarenak. Elgoibartarrak bosgarren dira sailkapenean, baina puntu bakarreko aldea daukate bertaldeen artean. Bestalde, joan den asteburuan egin zen Gabonetako egutegiaren zozketa. Zenbaki sarituak honako hauek izan ziren: lehen saria, 5.842; bigarren saria 4.606 eta hirugarrena, 6.887.

SASKIBALOIA Taldeko lehenengoak




Kenci-Arrasate saskibaloitzaletako taldeak irabaziz hasi du 2000. urtea. Lehenengo daude sailkapenean. Ceramicas Apaolazaren aurka 95 eta 58 irabazi zuten arrasatearrek, nahiz eta gasteiztarrek markagailuan aurreratu. Lehen zatia amaitu orduko, 9 puntuko aldea zuten arrasatearrek.

Bigarrenen defentsara jokatu zuten eta arazorik gabe eskuratu zuten garaipena. Eneko Gorostidik ez zuen jokatu, oraindik sendatzeke dagoelako. Errioxan jokatu du aste

honetan. Gaizka Hernandezek eta Iban Garridok ere ezin izan zuten jokatu, hauek ere min hartuta daudelako. Bestalde, lehiaketa batzordeak ezarritako zigorra tarteko, aukian geratu zen Iker Errasti. Aste honetan Errixora joango da. Igoera aldiko partida izango da eta hori dela eta, entrenamenduak gehitu egin dituzte seniorrek. Gainontzeko taldeen denboraldiko bigarren aldiari ekingo diote asteburu honetan.

Bestalde, joan den larunbatean, Gabonetan zozketa egin zuten Kenci Arrasatekoek Iturripen. Gidecolor pintura banatzaileak eta Arrasate Kirolak dendak eskaintako opariak zozkatu zituzten atsendenaldian. Ana Mari Ormaetxea eta Ricardo Vicente izan ziren irabazleak.

ESKUBALOIA 2000 efekturik gabe



Arrasate Almen eskubaloitzaletako 2000 efektu barik eman dio ongi etorria urte berriari. Elgoibarren jokatu zuten Bernardo Balerdiren mutilek. Lehen zatia nahiko ondo hasi zuten arrasatearrek, baina 5 eta 0eko partziala egin zieten bigarrenen elgoibartarrek eta Arrasate Almen taldekoentzat hortxe amaitu zen guztia. Ez dirudi, beraz, 2000 efektuak onik egin dienik arrasatearrei. Galtzen den azkena esperantza izaten omenenez, larunbatean Iturripen egiten dutena ikusi behar.

Aste honetan Urrietaren aurka jokatu du. Norgehiagoka larunbatean izango da, 18:00etan. Kadeteek ere etxean jokatu du; Hondarribiren aurka jokatu du, zapatuan arratsaldeko 16:00etan.

Etxeko lanak eta ardurak gizonezko eta emakumezkoen artean trukatzeko tailerrak

GIZONEZKOENTZAT:

- Sukaldaritza
- Garbitasuna
- Joskintza
- Plantxa
- Etxeko ekologia

EMAKUMEZKOENTZAT:

- Elektrizitatea
- Iturgintza
- Brikolajea
- Pintura
- Etxeko ekologia

Noiz: Urtarriletik apirilera
Ordutegia: Arratsaldeko 18:00-tik 20:00-tara.
Matrikula: 2.000 pta.
Izena emateko epea: urtarrilak 20, osteguna.
Arrasateko udaleko emakume sailean
943 79 41 39 telefonon.

Lanak zein ardurak ez du
sexurik. Banatu itzazu!



ARRASATEKO UDALA
Emakume Saila ■

Bizkorrak txapeldun



Aitor Lopez Rekarte Saria Bizkorrek taldeak irabazi zuen. Bonba Taldiek Mondra futbol taldearekin batera antolatzen du zazpinako futbol txapelketa hau "haurrentzako ekitaldi bat izateaz gain, hauek futbola ikusteko asmoz eta Mondra tal-

derako proposak izan daitezkeen jokalaria izateko". Zortzi talde aritu ziren eta abenduaren 31n jokatu zen finala Atxabalpen, Joma eta Bizkorrek taldeen artean. 6 eta 3 gailendu ziren Bizkorrek taldekoak. Hirugarren eta

laugarren, Koba Haundi eta Leze Txiki izan ziren, hurrenez hurren. Sari banaketan, Aitor Lopez Rekarte Errealeko jokalaria arrasatearra egon zen eta berak eman zien Bizkorrek taldeko jokalariei lehenengo saria.

Hasiera bikaina

Sorbaldan minduta batek eta orkatilako hezur bat apurtuta besteak. Horrelaxe amaitu zuten joan den larunbatean Atxabalpeko errugbi zelaian Arrasateko taldekoek. Partida gogorra izan zen oso, eta Zumbeltz Aranaka eta Iker Sainzarrek ospitalera joan behar izan zuten. Baina, Arrasateko errugbi taldeak garaipena eskuratu zuen. Elorrioren aurka 26 eta 3 irabazi zuen.

Larunbatean Atletico de San Sebastianen aurka jokatu dute Bera Bera errugbi zelaian.

Gaspe mailako taldeak Atletico Bera Beraren aurka aritu zen joan den astean eta 46 eta 5 galdu zuten. Kadeteek, 93 eta 10 galdu zuten Ordiziaren aurka. Aste honetan jai izango dute bi taldeek.

HIZKUNTZEN MUNDUA



Informa zaitez orain !

**Matrikula
Epea Zabalik**

- ▶ **Hizkuntza eta maila guztiak.**
- ▶ **Ordutegi malguak.**
- ▶ **Mediateka zure esku dohainik.**
- ▶ **Haur, gazte eta helduentzat.**
- ▶ **Multimedia sistemak.**



AHIZKE S. COOP
Avda. de Alava, 4 - 20500 ARRASATE (GIPUZKOA)
Tel.: 943 71 20 55 Faxa: 943 71 21 81
E-mail: secretaria@cim-idiomas.com
http://www.cim-idiomas.com
Olakua, 14 - 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
Tel.: 943 71 60 00

Florida, 8A - 01005 VITORIA-GASTEIZ (ARABA)
Tel.: 945 15 01 55 Faxa: 945 15 01 56
E-mail: gasteizbaibay@cim-idiomas.com
Zubieta, 26 - 20007 DONOSTIA (GIPUZKOA)
Tel.: 639 71 98 58
E-mail: secretaria@cim-idiomas.com
http://www.cim-idiomas.com





Busti gaitezen!

Uda iristeko oraindik hilabete batzuk falta dira, baina Arrasate Kirol Proiektuko (AKP) haurrek, ez diote udari itxarongo eta larunbatean bertan busti egingo dira. Igerilekura joango dira. Izan ere, larunbatean Lehen Hezkuntzako 1. 2., 3. eta 4. mailako neska-mutikoei igeriketa saioei ekingo diete. Aurrekiroleko haurrak izango dira AKPko lehenengoak aurten igeriketan aritzen. Larunbatean hiru talde nagusi izango dira Musakolako igerilekuan.

Baina hau hasiera baino ez da izango. Urtarrilaren 22an, gaztetxoenen txanda izango da eta. Lehenengo eta bigarren mailetako haurrek izango dute igeriketan hasterako aukera, orduan. Eta ez hori bakarrik,



jolasean ere egingo dute eta. Igerilekuan dagoen jolasera-

ko materialarekin eta puzgarriekin ibiltzeko aukera izan-

go dute.

MULTIKIROLEAN ERE BAI

AKPn ari diren beste haur guztiek ere igerilekura joateko aukera dute. Infantilak urte hasieratik ari dira igerian ikasten. Astean hiru ordu egiten dituzte Musakolako uretan murgilduta.

Bestetik, multikirolean dabilzan ikasleei ere zabaldu zaie igeriketa saioetara joateko aukera. AKPko arduradunek adierazi digutenez, "begiraleek euren ardurapean dituzten neska-mutikoak igerilekura joan daitezen animatzea nahi dugu".

Beraz, badakizue, uda iritsi aurretik igeri egiten ikasi nahi baduzue edo dakizuen ez ahazteko, aprobetxatu aukera paregabe hau!

Asteburuko hitzorduak

Urtarrilak 15, larunbata

INFANTILAK SASKIBALOA MUTILAK

San Viator
09:30 Arrasate A - Txantxi DBH
2BBM
10:30 Arrasate B - Mariaren
Lagundia B
11:30 San Viator - Mariaren
Lagundia A

FUTBOLA NESKAK

Atxabalpe
09:00 SFX B - La Merced
09:00 SFX A - Elgeta
San Viator (atsedena)

MUTILAK

Almen
10:30 Almen - La Merced
Musakola
10:00 SFX - Aranzadi

MULTIKIROLA ARETO FUTBOLA NESKAK

Gazteluondo
09:30 SFX A - San Viator B
Jturripe
11:00 San Viator A - Erguin
Gazteluondo
11:45 Merced - SFX U

MUTILAK

Jturripe
09:30 San Viator A - SFX B
Jturripe
10:15 San Viator B - SFX C
Gazteluondo
10:45 San Viator C - Aramaio
Gazteluondo
11:00 SFX U - Erguin
Jturripe
11:45 Merced - SFX A

MULTIKIROLA IGERIKETA

09:45 Musakola
Merced A, B
SFX E, A
10:45 SFX D
Erguin A, B
San Andres
San Viator A
11:45 SFX B, C, U,
San Viator B
Aramaio


Mendi irteera

Asteburu honetan ikasturteko laugarren mendi irteera izango dute AKPn ari diren neska-mutikoei. Kurtzeta gainetik abiatuko dira eta Durakogain eta Asentzio tontorak zeharkatu ondoren, Apotzagatik Aretxabaletara jaitsiko dira.



Multikiroleko SFX B taldea.

Zer da hau?



Horrela ezin leike" zioen Delirium Tremens taldearen abestiak eta arrazoi zuten. Nola daiteke horrela aritzea? Txikiagoa izan eta gainera zapaldu. Hau da, hau, jira!

Ordenadoreek eta antzeko teknologia berriek ez omen dute jasan 2000 efektua hasieran adituek aurreikusi zuten bezala. Dena kontrolatua egon omen zen urte amaiera aldera eta urte berriaren etorrerak ez omen zuen ezer txarrik eragin. Ez, ordea, Zaldibarko txapel-

ketan. Izan ere, hainbat taldek gaizki ulertu dituzte urte berria datorrenean opa izaten diren desio onak eta kale egin dute. KK Jaurlaritzari eta Totem taldeei buruz ari gara. Bi talde hauek urte berriarekin batera, agur esan diote txapelketari. 2000 efektuaren ondorioz

ala ez, kontuak kontu ez ziren asteburuko jardunaldira agertu. Gauzak horrela, talde biak kaleratu egin dituzte antolakuntzakoek.

Urte berria, beraz, bi talde gutxiagorekin hasi du Bonba Taldieren txapelketak. Baina ez hori bakarrik. Saukelu



Scream taldeak ere izan du 2000 efekturik. Talde hau ez dute txapelketatik kanpo laga, baina martxa honetan, bidean dela esan dezakegu. Oraingoz abixua baino ez dute jaso talde honetako jokalariek, baina ez edozelakoa: iskanbilatsuegiak direla eta adi ibiltzeko esan omen diete Bonbakoek. Beraz, mutilak, badakizue: urte berriarekin batera, ohiturak aldatu edo kalera!

EFEKTUAREKIN SEGITUZ

Aldibi taldeak, iazko txapel-dunak, ez dauka gogorik aurtent txapelketa eskuratzeko edo gu engainatzen ari da. Urte berriarekin batera galtzen doa oraindik eta joan den asteburuan ere 1 eta 4 galdu zuen Timoftol taldearen aurka. Hau da hau, jira! Hau ere 2000. urteko efektu dontsuaren eragina ote da?



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Emaitzak

A taldea

Bar Nuevo 2 - DBK 6
 Atxanta el Ret. 6 - Etxe Mobil 6
 Irati STS 4 - Sokoakoak 2
 Fraguél Gol 1 - Totem 0
 Giraldilla Conection 2 - Betrayer 4
 Ko. Alpargat 2 - Xhasss Ugarte 2
 Ume Zikinak 0 - Orlando Piratas 2
 You Know 4 - Diego Antonio 1
 AC Surkos 8 - Kan. Harrobia 5
 AT Lokala 3 - Saukelu Scream 4

B taldea

Alai Gozokiak 7 - Makai 3
 Makanudos 1 - KK Jaurilaritzari 0
 Kamasutra 5 - Etxerat 2
 EPEH 4 - Sas T 2
 Txeyenex 3 - Potroak 3
 Borrock & Roll 3 - Dribling 8
 Koka Juniors 3 - Leya 3
 Aldibi 1 - Timofotl SMD 4
 AKTA 2 - IKP 1
 Serengetti 3 - Branka Taberna 3

Sailkapenak

A taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldi.	Aurk.	Guzt.
Orlando	7	5	2	0	45	20	12
You Know	6	6	0	0	45	16	12
AT Lokala	7	6	0	1	35	17	12
K. Alpargat	7	5	2	0	30	21	12
Irati STS	7	5	0	2	53	32	10
Ume zikinak	7	4	2	1	49	27	10
Kobate DKB	7	5	0	2	33	16	10
Kanpazar Harrobia	7	4	1	2	31	18	9
Goma 2	7	4	0	3	33	26	8
Sau. Scream	7	4	0	3	33	24	8
AC Surkos	7	3	1	3	36	25	7
DA Iristu	7	3	1	3	33	43	7
Betrayer	7	3	0	4	28	32	6
Fraguel Gol	7	3	0	4	27	33	6
Totem	7	3	0	4	18	29	6
Xhasss Ugar.	6	2	1	3	41	29	5
Sokoakoak	7	2	1	4	20	37	5
Etxe Mobil	7	1	1	5	28	28	3
Giraldilla Con.	7	1	0	6	23	54	2
Atxanta el Ret.	7	0	2	5	16	63	2
Bar Nuevo	7	0	0	7	14	74	0
Lontxo Tab.	7	0	0	7	0	7	0

B taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldi.	Aurk.	Guzt.
KJ Basati	7	6	0	1	50	26	12
Dribling	6	6	0	0	39	10	12
Timofotl SMD	7	4	2	1	35	19	10
Etxerat Tab.	7	4	1	2	37	23	9
Kamasutra	7	4	1	2	33	21	9
IKP	7	4	1	2	31	20	9
Serengetti	7	4	1	2	23	26	9
EPEH	7	4	0	3	35	30	8
Borrock & Roll	7	3	2	2	35	25	8
KK Jaurilaritzari	7	4	0	3	29	22	8
Garaje Oscar	7	2	3	2	28	21	7
Txeyenex	7	3	1	3	26	33	7
AKTA	7	3	1	3	20	15	7
Branka Taberna	7	2	2	3	37	32	6
Leya	7	2	2	3	20	26	6
Aldibi	6	2	1	3	24	34	5
Alai Gozokiak	7	2	1	4	24	31	5
Potroak	7	1	3	3	19	28	5
Aurrera Bolie	7	1	2	4	16	30	4
Makanudos	7	1	1	5	18	51	3
Makai	7	1	0	6	30	64	2
Sas T	7	0	1	6	17	39	1

ARRASATE  **KIROLAK**
 Kontzezio Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

Hurrengo partidak / 8. jardunaldia

Larunbata, 15

Zaldibar

08:50 DKB - You Know (Ume Zikinak)
 10:00 AT Lokala - Ume Zikina (DKB)
 11:00 Leya - Aurrera Bolie (AT Lokala)
 12:00 Komando Alpargat - Bar Nuevo (Leya)
 13:00 Etxerat - Serengetti (Bar Nuevo)
 14:00 Timofotl - AKTA (Etxerat)
 15:00 Giraldilla Con - Xhasss (AKTA)
 16:00 Garaje Oscar - Txeyenex (Xhasss Ugarte)
 17:00 IKP - Koka & Basati (Garaje Oscar)
 18:00 Goma 2 - Fraguél Gol (IKP)
 19:00 Borrock & Roll - Aldibi (Fraguel Gol)

Epailea

Iturripe A

16:00 Atxanta el Retorno - AC Surkos (Petroak)
 17:00 Petroak - Alai Gozokiak (Atxanta el Retorno)

Iturripe B

16:00 Kamasutra - (zehaztu gabe) (DA Iriztu)
 17:00 Etxe Mobil - DA Iriztu (Kamasutra)

Igandea 16

Zaldibar

09:50 Makai - Sas T (Betrayer)
 11:00 Sokoakoak - Betrayer (Makai)
 12:00 Orlando - Irati STS (Sokoakoak)
 13:00 EPEH - Branka Taberna (Irati STS)

Atsedena: Saukelu Scream, Dribling, Kanpazar Harrobia

“Arrasate 98 lehiaketak” liburuskak kalean

Aste honetan kaleratu da AED Kultura Elkarteak argitaratutako “Arrasate 98 lehiaketak” liburuskak. AEDk antolatzen dituen izen bereko lehiaketan lehenengo saria eskuratu dutenen lanak jasotzen ditu liburuskak.

Ipuinei dagokienez, eta adinaren arabera, Garazi Ohianguren, Leire Bedia Sanz, Maitane Madinabeitia, Manex Agirre, Ioana Oncala eta Itziar Larrañagaren ipuinak irakur daitezke. Itziar Osa eta Ane Zabalaren bertso paperak ere jasotzen ditu, eta baita Itziar Osaren, Manex Agirrerren eta Maider Osaren poesiak ere. Komikizaleek ere izango dute liburuskak honekin gozatzeko aukera, Iban Galan, Jon Gonzalez eta Mikel Fernandez de Arroia-be irabazleen marrazkiak ere aukeran baitaude.



arrasate
98
lehiaketak

ALEEN BANAKETA

Diseinua Maddi Trutxuelo diseinatzaile andoaindarrak egin du, eta Oñatiko Gertu inprimategian inprimatu dira ale guztiak: guztira mila eta hirurehun. AEDko bazkide bakoitzari ale bana helaraziko zaio hilabete bukaeran, “Atea” berripaperarekin batera. Gainontzekoak, berriz, Arrasateko ikastetxe, liburutegi, elkarte eta sarituen artean banatuko dira.

Liburuskaren babesleak Arrasateko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia izan dira.

Bestalde, AED elkarteak abian jarri ditu aurten ere XIII. Arrasate lehiaketak. Lanak aurkezteko azken eguna otsailaren 11 izango da, eta AEDk Pablo Uranga kalean duen elkartera eraman edo bidali beharko dira.

Dantza eta zeramika ikastaroak aukeran

Arrasateko Ekin emakume taldeak dantza ikastaroa antolatu du urtarrilaren 10etik apirilaren 10era bitartean. Eskolak, 15:00retatik 16:30ak arte. Irakaslea, Natalio Maiztegi

dantzari oñatiarra izango da. Izen ematea Ekin emakumeak elkartearen egoitzan, 15:00retatik 19:00etara.

Leniz zeramika eskolak ere ikastaroak antolatu ditu.

Zeramika lantzen hasi berri direnentzako, mosaikoen inguruan lan egin nahi dutenentzako, buztzingintza, eskultura eta muralak landu nahi dituztenentzat izango dira ikasta-

roak. Eskolak urtarrilaren 11n hasiko dira. Asteartetan eta ostegunetan emango dira ikastaroak, 19:00etatik 21:00etara bitartean. Argibideak 943770065.

Gazte-eragilea behar da Txatxilipurdin



- Kontuan hartuko dena:**
- Euskara maila
 - Gazteekin esperientzia izatea
 - Ikasketak
 - Disponibilitatea

Curriilucumak urtarrilaren 21a baino lehen bidali Txatxilipurdi Elkartera:

TXATXILIPURDI ELKARTEA

Pablo Uranga, 4 behea • 20500 ARRASATE

Tel.: 943 79 54 46 • Faxa: 943 79 74 01

Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu telefono hauetara eta galdetu Sonja edo Errukanegatik.

Koldo Gojenolaren margolanak

Koldo Gojenola eibartarrak bere margolanak jarri ditu ikusgai Toki Eder kafetegian. Urtarrilean zehar bertako ormetan izango ditu zintzilik artista honek bere lanak. Gojenola 1961ean jaio zen eta azkenen bi urteotan sari ugari irabazi digu margoei esker. Iaz esaterako, Balmasedako aire zabaleko margo lehiaketan lehenengo gelditu zen eta baita Lezo eta San Millaneko lehiaketetan ere.

Eibartar honek aurretik



Bilbon, Balmasedan eta Gasteizen jarri ditu ikusgai bere lanak.

NAIARA GORROÑO (ETB-KO BARREBUSA SAIOAREN EKOIZLE)

“Kulturan aukera erakargarria eskaintzen du Arrasatek”

Astelehen eta asteartean iritsiko da Arrasatera ETBren Barrebusa ikuskizuna. Eta Arrasaten ezaguna den norbait dugu hor lanean: Naiara Gorroño, besteak beste ATBko kazetari eta aurkezle izandakoa.

— Zein da Barrebusaren helburua?

— Bere izenak esaten duen bezala, barre eragitea. Seme-alaba eta gurasoen arteko harreman polita sortzea da asmoa. Gainera, haurrei euskaraz gaur egungo kontuei buruz hitz egitea ere nahi izan dugu.

— Zergatik erabaki zen herriz-herriko programa izatea?

— Euskal Herriko toki guztietara iritsi nahi genuen. Telebistaren mundua eta pailazoak jendeari hurbiltzea erabaki zen, eta hau iruditu zitzaigun modurik aproposena.


— Arrasate aukeratu duzue lehen geltoki moduan...

— Bai, Azpiegitura aldetik, Amaia antzokia primeran dago. Bestalde, herri erakargarria da duen kultura eskaintzarengatik.

— Zu ekoizle lanetan egongo zara, kameraren atzean, alegia. Orain arte, kazetari eta aurkezle moduan eta albiste saioetan ibili zara. Ez da aldaketa makala...

— Albistegiaren ondoren, lan sortaileago eta artistikoagoa probatu nahi nuen. Aukera hau sortu zen, ideia gustatu egin zitzaidan... eta hementxe nago.

— Bueltatuko zinateke kazetari eta aurkezle lanetara?



— Kazetaritza oso mundu irekia da. Denetarik probatzea eta nork bere bidea aurkitzea da kontua. Ez diot ezeri ezetz esaten.

— Alde handia sumatu al duzu ATB bezalako komunikabide txiki batean eta ETBn lan egiteko moduaren artean?

— Bai; batez ere giroan sumatu dut alde. Hedabide txikietan guztiok ezagutzen dugu elkar eta lan egiteko modua guztiz desberdina da.

— Orain Txirri, Mirri eta Txiribiton, Txan magoa eta Kike Amonarizekin ari zara lanean. Zer moduzkoa da lana?

— Benetan dibertigarria. Telebistan azaltzen diren baino atseginagoak dira. Oso gustura nago.

— Arrasateko saioei buruz, zer edo zer aurreratuko diguzu?

— Txatxilipurdiko neska-mutilek dantza egingo dute. Eta Arrasateko pertsona xeble bat ere egongo da, aita-amak eta haurrak aho zabalik uzteko modukoa.

aste gazte

■ EGA AZTERKETA

• Aurtengo EGA azterketa egin nahi izanez gero, izen emateko epea urtarrilaren 24tik otsailaren 4ra, Hezkuntza Ordezkaritzetan.

■ DIRULAGUNTZA

• Aurtengo ikasturtean uni-bertsitatera eguneroko garraio gastuak ordaintzeko ohiz kanpoko dirulaguntzetarako deialdia egin da. epea: urtarrilak 24.

• Museologia bekak, Bilboko Itsas Museoaren eskutik, historia, soziologia edo gizarte-antropologia lizentziatuei zuzendua. epea: urtarrilak 21.

■ LANA

• Txatxilipurdirako gazte dinamizatzailea behar da. Kurrikulumak aurkezteko epea: urtarrilak 21.

• Nafarroako Foru Komunitaterako turismo enpresa eta jardueretarako teknikaria behar da. epea: urtarrilak 21.

• Bergarako Udalerako udaltzaina behar da. Epea: urtarrilak 24.

• Zizur Nagusiko Udaleko Musika Eskolarako bonbardinoko irakaslea behar da. Epea: otsailak 2.

■ IKASTAROKAK

• Etxeko ardurak gizonezko eta andrazkoen artean banatzeko lantegia antolatu du Udaleko Emakume Sailak. Iturgintza, elektrizitatea, pintura, jostintza, sukaldaritza, garbiketa, etxeko ekologia... ikasteko aukera egongo da.

• Leintz Zeramika Eskolako zeramika ikastaroa antolatu du. Astearte eta ostegunetan, 19:00-21:00.

• Iñaki Bruñaren eskutik, astelehenero perkusio ikastaroa, 18:00-21:00, Gazteluondoko ikastolan.

Argibideak:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

“Txirri, Mirri eta Txiribiton telebistan baino atseginagoak dira aurrez aurre”

ATB

Programazioa

OSTIRALA, 14

- 13:30** Albiste aurrerapena
13:35 Gatza eta Berakatza. Edurne Izarzelaiak Dukiena jatetxeko sukaldariak prestatuturiko plater bat.
13:45 Musiklasik, Carmina Burana eta Arrasateko Akordeoi txapelketa (errepika).
20:00/20:30/21:00 Berriak
21:30 Astebete. Maider Osaren eskutik asteari errepassoa egingo diogu.



Maider Osa.

- 22:00** Soinuz Blai. Miren Gonzalezek aurkeztuta (errepika).

LARUNBATA, 15

- 13:30** Asteko programen errepikapena: Hamaika Magazin, Aurrez Aurre, Musiklasik, Soinuz Blai eta Astebete.

IGANDEA, 16

- 13:30** Asteko programen errepikapena: Hamaika Magazin, Aurrez Aurre, Musiklasik, Soinuz Blai eta Astebete.

ASTELEHENA, 17

- 13:30** Albiste aurrerapena.
13:35 Gatza eta Berakatza. Aitor Aizpurua, Oñatiko Iturritxo jatetxeko sukaldariaren eskutik.
13:45 Astebete (errepika).
20:00/20:30/21:00 Berriak.
21:30 Mondrasport. Itxaro Zubillaga eta Xabier Urzelaiaren eskutik asteburuko kirol emaitzak jakingo ditugu.



Itxaro Zubillaga eta Xabier Urzelai.

- 22:10** Gatza eta Berakatza (errepika).

ASTEARTEA, 18

- 13:30** Albiste aurrerapena.
13:35 Gatza eta Berakatza Aitor Aizpurua, Oñatiko Iturritxo jatetxeko sukaldariaren eskutik.
13:45 Mondrasport (errepika).
19:20 Jolasplast. Mikel Lizarralde aurkeztutako haurren lehiaketa.



Jolasplasteko aurkezleak.

- 20:00/20:30/21:00** Berriak
21:30 Hamaika Magazin. Arantzazu Lagunillak aurkeztuta, osasuna, sexualitatea, horoskopoa eta hainbat kontu jakiteko aukera izango da.



Arantzazu Lagunilla.

- 22:00** Gatza eta Berakatza (errepika).

ASTEAZKENA, 19

- 13:30** Albiste aurrerapena
13:35 Gatza eta Berakatza. Aitor Aizpurua, Oñatiko Iturritxo jatetxeko sukaldariaren eskutik.
13:45 Hamaika Magazin. Arantzazu Lagunillak aurkeztuta, osasuna, sexualitatea, oroskopoa eta hainbat kontutaz jakiteko aukera izango da. (errepika)
20:00/20:30/21:00 Berriak
21:30 Aurrez Aurre. Edurne Mujikaren eskutik Arrasatear interesgarrien baten bizimodua ezagutzeko aukera izango du.
22:00 Gatza eta Berakatza (errepika).
22:10 Soinuz Blai.

OSTEGUNA, 20

- 13:30** Albiste aurrerapena
13:35 Gatza eta Berakatza. Aitor Aizpurua, Oñatiko Iturritxo jatetxeko sukaldariaren eskutik.
13:45 Aurrez Aurre (errepika)
20:00/20:30/21:00 Berriak
21:30 Guganda. Bailarako gobernuz kanpoko taldeek egindako saioa. Oraingoan Asiako kontinentean bizi den egoeraz gehiago jakin ahal izango dugu.




Aintzane Gardoki.

- 22:00** Gatza eta Berakatza (errepika).
22:10 Soinuz Blai. Edu Abasolok aurkeztuta.

OSTIRALA, 21

- 13:30** Albiste aurrerapena
13:35 Gatza eta Berakatza Aitor Aizpurua, Oñatiko Iturritxo jatetxeko sukaldariaren eskutik.
13:45 Guganda (errepika)
20:00/20:30/21:00 Berriak
21:30 Astebete. Maider Osaren eskutik, asteari errepassoa egingo diogu.
22:00 Gatza eta Berakatza (errepika).
22:10 Soinuz Blai. Edu Abasolok aurkeztuta (errepika).

Gatza eta Berakatza



Aste honetan Aitor Aizpurua izango dugu sukaldean, plater gozoak prestatzen. Aitor Iturritxo jatetxeko sukaldaria da, Oñatin.

Datorren astean

NOIZ

Astelehena 17
Asteartea 18
Asteazkena 19
Osteguna 20
Ostirala 21

PLATERA

Arroz entsalada patearekin.
Babarrun zuriak otarraintxoekin.
Eper konfitatuak.
Izokina saltsa motzean.
Laranja limoi moussez betea.

Enpresa ekimenak

Ekilan osteguna, 21:30

Zuetariko askok ederki eza-gutzen duzue bere ahotsa. Izan ere, Alberto Gorritibereak 17 urte daramatza Gipuzkoako Herri Irratian. Lapiko guztietako burrun-tzalia izaki, Albertok antzerkia, esataritza eta deklamazioa egin izan du.

Orain bi urte Jon Alda-nondok enpresen gaineko telebista programa bat egitea proposatu zionean, hasierako ikararen ostean, zezenari adarretatik heldu eta airoso atera da, betiko moduan.

Ekilan saioak gai nagusi bat izaten du, gai horrekin lotutako gonbidatu bat edo birekin. Azken saioan kalitatea izan zuten berba-gai, Coprecik eta Fagor Elektronikak Zilarrezko Q ikurra irabazi zutela aprobetxatuz. Berriro ere Mondragon Unibertsitatea izan

zuten mintzagai eta baita Euskadiko Kutxa ere.

Saioak beste bi errepor-taje izaten ditu, zein baino zein interesgarriagoak. Batean Arrasaten zer egiten den aztertzen da: txakolina, hozkailuak, Errealarentzako jantziak, baserriko ogia, etab. Bestean, hainbat jenderen nondik norakoak aztertzen dira: Agustin Markaide, Koldo Azkoitia...


Saioaren bukaeran, aldiz, hiru bat albiste ematen dira, aktualitate ekonomikoarekin lotutakoak.

Horrekin guztiarekin ordu erdiko saioa egiten hasi zen, baina azken aldia ia 45 minutura iritsi da. Ailegatu zaigun informazioaren arabera, gero eta jende gehiagok ikusten du Ekilan. Alberto bera ere, buru-belarri ari da atal berriak prestatzen.



Alberto Gorritiberea.

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 943 79 87 62



PEUGEOT

Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



Txitxinpe

Bereziatasunak

Kazuelatxoak

Otarreteko hotz eta beroak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel: 943 79 67 76

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

- Etxe txiki eta merkea salgai Eibarren. Tel.: 943 12 71 04.

3. Errentan emateko

- Etxebizitza alokagai, Eskola Politeknikotik gertu. Tel.: 943 79 51 88. 14:30etik aurrera.

- Ikasleentzako etxebizitza alokatzeko da San Andresen. Tel.: 943 77 03 53.

4. Errentan hartzeko

- Bikote batek etxebizitza hartuko luke alokairuan, posible balitz Arrasaten. Tel.: 617 01 47 90.

- Arrasate erdialdean edo San Andresen eta inguruan emakume batentzat etxebizitza behar da errentan hartzeko. Tel.: 606 86 71 97.

5. Etxeak osatzeko

- Etxebizitza merke bat alokatuko nuke Arrasaten edo Aretxabaletan. Utzi zure datuak telefono hauetan: 943 79 34 37 edo 943 79 15 95.

- Etxebizitza osatuko nuke Arrasaten otsailetik aurrera. Tel.: 943 61 99 24.

GARAJEAK

7. Saldu

- Garajea salgai Kontzeziño kalean. Tel.: 943 79 54 07.

- Garajea salgai, Jose Luis Inarra pasealekuko 18an, Altamiran. Tel.: 943 79 23 27. 14:00 - 17:00 eta 20:00etatik aurrera.

9. Errentan emateko

- Garaje itxia alokatzen da. Roneko etxeetan. Tel.: 943 79 19 64. 20:00etatik aurrera.

- Estreintatu gabe dagoen garaje itxia alokatzen dut Uarkapen. Tel.: 943 79 01 84. 20:00etik aurrera.

- Garaje itxia alokatzen da Uarkapen. Tel.: 943 79 13 97.

- Garajea alokatzen da Uarkape kalean. Tel.: 943 79 84 35.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontakatuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press-ek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

- Akademia batek eskola partikularrak emateko ikasgela alokatzen du. Tel.: 943 79 18 70.

- Prentsa saltzen duen denda salgai edo alokagai Aretxabaletan. Tel.: 943 77 19 20.

14. Errentan emateko

- San Bizente kalean 60 m²ko etxabea alokagai, berogailu eta guzti. Kontsulta edo ofizinarako egokitua dago. Tel.: 943 79 18 95.

- Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m²ko eta bi solairuko lokala alokagai. Tel.: 943 79 42 65.

- Prentsa saltzen duen denda salgai edo alokagai Aretxabaletan. Tel.: 943 77 19 20.

LANA

17. Eskaintza

- Emakumea prest goizez lan egiteko. Tel.: 943 79 40 72. Vitori.

- Neska euskalduna, administrazio eta komertzial tituluduna, prest alor honetako lanak egiteko. Frantsesa eta ingelesa menperatzen ditut. Tel.: 943 79 45 24 eta 943 75 50 45. Ane. 20:00etatik aurrera.

- Neska euskalduna eta esperientziaduna etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko prest. Tel.: 943 79 45 24 eta 943 75 50 45. Ane. 20:00etatik aurrera.

- Esperientziadun emakume euskalduna orduka etxeko lanak egin edo bulegoak garbitzeko prest. Tel.: 943 79 37 68.

- Ospital laguntzaile tituluduna prest pertsona nagusiak eta gaixoak zaindu eta eramateko, auto handi batean. Tel.: 609 77 01 33.

- Neska gaztea prest umeak zaindu edo zerbitzari lanak egiteko. Tel.: 943 79 68 77.

- Emakumea prest arratsalde umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

18. Eskerak

- Pertsona bat behar da sukaldean lan egiteko. Tel.: 943 79 00 34.

- Umeak zaintzeko neska bat behar

da. Tel.: 943 77 17 97.

- Jatetxe batean sukaldaria behar da. Tel.: 943 79 24 58.

- Pertsona bat behar da Aramaion (Uribarri auzoan) Intxaurren Elkar-tereko garbiketarako egiteko. Interesatuok deitu 945 44 50 68 telefonora. Jabier edo Klaragatik galdetu.

- Jatetxe batean garbiketarako pertsona bat behar da. Tel.: 943 79 24 58.

- Gazte bat behar da taberna batean lan egiteko. Lana ordukakoa da, ikasleentzat egokia. Tel.: 656 72 14 82.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

- Ingeles filologia ikasten ari den mutilak, ingeleseko eskola partikularrak emango lituzke Mondragoen edo Eskoriatzan. Tel.: 943 71 47 85.

- Esperientzia eta EGA titulua duen lizentziatuak Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eskola partikularrak ematen ditu, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Tel.: 9432 79 83 46.

21. Eskerak

- Abenduan zehar alemanierazko eskolak jasoko nituzke. Tel.: 943 79 99 82. Miren.

MOTORRA

23. Saldu

- R5 Turbo Fase 2, salgai. Tel.: 943 20 83 94 edo 600 89 02 45.

- Fiat Ducato furgoneta salgai. Hiru urte ditu, 1.600 kg. ko karga ahalmena eta garaia. Tel.: 943 76 09 12.

- Renault 21 TXE salgai. A/A, E/E, D/D, C/C, remolkatzeko gakoa. 120 cv. Merkea. Tel.: 600 43 78 02. Urtzi.

- R-21 turbo autoa salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 15 96. Asier.

DENETARIK

26. Saldu

- Rot Weiler txakurrak salgai. Interesatuok deitu 943 71 48 53 telefonora.

- Bulego altzariak salgai (mahaiaik, aulkiaik), oso merke. Tel.: 943 79 84 35.

• Ekonomika salgai. Egurra errezura berotzen du, iturri eta berogailuetakoa. Tel.: 943 76 62 36.

• Akuariuma salgai, osagai guztiekin. 150 litrokoa. Tel.: 649 05 32 08.

• Kerosenozko berogailua, usainik botatzen ez duena, salgai. Kero markakoa da eta ia berria dago. Prezio onean. Tel.: 943 79 09 43. Denda orduetan deitu.

• Solarium bat salgai dago, oso gutxi erabili. Tel.: 943 77 16 54.

• Convert Supreme karro-denda, osagai guztiekin salgai. Tel.: 943 77 13 81. Manuel. 20:00etatik aurrera.

• 42 zenbakiko zeharkaldirako eskia salgai. Lowa marka; berriak daude. Deitu 943 79 84 04 edo 943 79 27 39 telefonoetara. Andoni.

• Urtebeteko Nintendo 64a salgai. Prezio onean. Tel.: 943 77 04 21.

• Opel Comborentzat, auto gainean trasteak eramateko bi barra salgai. Merke-merke. Tel.: 943 79 15 96. Unai.

• Shin-tzu txakur kumeak salgai. Tel.: 946 84 26 86.

• Lau urteko bi logela oso salgai.

Tel.: 616 81 15 96. Jose Luis.

• Bizikleta estatikoa salgai. Tel.: 943 79 12 46.

• Digitech RP7 balbe gitarra pedalera salgai. Prezioa: 66.000 pta. Tel.: 943 79 30 77. Liher.

• Boxer arrazako txakur kumeak salgai, pedigreearekin. Tel.: 696 05 73 46.

• Euskal artzai txakurraren kumea salgai. Hilabete eta erdikoa. Merke. Tel.: 943 79 60 48. Nerea.

• Soinu txikia salgai. Berria, zero-sette. Solen afinatua. 190.000 pta. Tel.: 945 27 44 26.

• SWR Twelve Bass Combo Celestine marka duen 100 W-dun aplikadorea eta Ibanez baxu elektrikoa bere kutxatilarekin batera, salgai. Ondo zainduta eta egoera onean. Tel.: 943 79 94 49. Oskar.

• Bulegorako altzariak salgai. Tel.: 943 79 84 35.

27. Erosi

• Xoxoa disketxeak ateratako LPak erosten ditut: Lisker, Itoiz, Itziar, etab. Tel.: 943 52 65 77.

29. Eman

• Ehizako hiru txakurkume emateko. Bi hilabete baino ez dute. Tel.: 943 79 55 07.

31. Galdu

• Betaurrekoak galdu ditut Arrasate, Bedoña, Urkulu inguruan. Eskertuko nuke deitzea. Tel.: 606 86 71 97. Gaeuz deitu.

• Euskaltegiko apunteak eta koarderno bat dituen karpeta beltz bat galdu zaizkit erdialde inguruan. Aurkitu badituzu, deitu mesedez 943 79 99 55 telefonora. Virginia.

• Urrezko eskumuturrekoa galdu zait Larrea plaza eta San Viator Txiki inguruan. Aurkitu baduzu, deitu 943 79 81 50 telefonora, mesedez.

• Jokin Zaitegi plazan bi giltza-sorta galdu nituen. Sobre baten barruan zeuden. Aurkitu dituenak, mesedez, telefono honetara deitu dezala: 943 75 22 74. Arratsaldez.

32. Aurkitu

• Puntuzko txaleko marroi eta grixa aurkitu dut autobus geltokian, Inte-

resatuok jo Abaroara eta Tere Guri-diz galdetu.

• Urrezko katea dominarekin, Iñaki eta data jartzen duena, Udaltzaingoan dago jasota.

33. Bestelakoak

• Musika talde batek lokala behar du entsaiatzeko. Tel.: 943 79 81 19.

• Reiki II, esku ezartzeko saiok. Mota guztietako gaixotasunak: estresa, insomnioa, buruko minak, beheraldiak. Tel.: 943 79 82 18. 20:00etatik aurrera.

HARREMANAK

35. Kontaktuak

• Deba Garaiko grafologo batekin harremanetan jarriko ginatke. Tel.: 943 71 25 11.

• Gasteizera arratsaldeko 16:00ak aldera egunero autoz baldin bazoaz, gastuak banatuko nituzke. Tel.: 943 79 58 88. Maite, gaeuz deitu.

• Bartzelonako telekomunikazio enpresa garrantzitsuak inbertsorea behar du (10 milioitik gora) Tel.: 943 22 51 61. Iñaki.

Loramendi kirolak

%30

- Forro polarrak
- Prakak
- Txamarrak
- Sudaderak eta abar

BEHERARENAK!

Zapatilak

%20-50

San Andresen eta Garibain



L 976an Garagartzako ehiztari talde honek hiruzpalau basurde harrapatu zituen Besaide inguruan, tartean, asto gainean daramaten basurdetzarra. 89 kilo pisatzen zituen animalia garau honek. Hori zela eta, astoa erabili behar izan zuten men-

ditik auzoraino jaisteko.

Ezkerretik hasita honakopak dira argazkiko lagunak: Manolo Aranburuzabala, atzekoa, Luis Mendarozketa, hurrengoa Jose Ozaeta eta ondokoa Lucio Zeziaga "Hermoso".

Eskuinera salto eginez gero, Juan Jauregi da basur-

dearen aurre-aurrean dagoena. Honen atzekoa, Tomas Uranga da, eta ondoko mutikotxoa, berriz, Iñaki Aranbarri. Aurrekoa bueltatuta duen, Eduardo Ozaeta da, Luisen anaia.

Urte haietan, ehizan egiteko ohitura nahiko handia zuten herriko koadrilek. Eskopetak eta txakurrak hartu eta

mendira joaten ziren basurdeak harrapatzeko uxaldiak egitera. Ondoren, harrapatutakoarekin afaria egiten zen.

Argazkia:

Iturbe, ehiztari ohia

Berriemaleak:

*Iturbe, Leze Txiki elkarte
eta Imanol Maiztegi.*



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Zer meritu dauka horrelako autobatek 5 urteko garantia izateak?



5 urteko garantia kilometro-mugarik gabe

Nissan Primera berriaren zenbait desberdintasun lehen egunetik gozaten da: Bere diseinu sendo eta kirol itxurakoa. Erosotasuna, dotorezia, eta barruko isiltasuna. Temperatura perfektua, klimatizagailuari esker. Bere Xenon optikei esker duen ikuspen bikaina. NBA (Nissan Brake Assist) galgatze-sistema, ahalegin txikiagoarekin galtze eraginkorragoa ziurtatzen duena. Multi-link suspentsio hobetua, egonkortasuna, kontrola eta arintasuna ematen diotenak. Alboetako eta aurreko airbagak, gorputz-enbor eta buruarentzat babesdunak. Cambio Hypertronic iraultzailea, CVT automatikoaren eta sei abiadurako eskuzko sekuentzialaren artean aukeratzeko modua eskaintzen duena. Motorraren gestio elektronikoa, biraketa-gama guztietan erregaiaren kontsumoa eta etekina hobetzeko. 1.6 (100 CV), 1.8 (114 CV), 2.0 (140 CV) eta turbodiesel (90 CV) bertsioetan. 4 eta 5 ateko eta SportWagon karrozeriak. Beste desberdintasun batzuk, berriz, urte batzuk geroago gozatuko dituzu. Garantia adibidez: 5 urte, kilometro-mugarik gabe. Hala ere, horrelako garantia eskaintzen badizugu, bistakoa da zergatia: seguruenik ez duzu sekula behar izango.

Bertsioen araberako ekipamendua.

Nissan Primera Berria. Bete-bete autoa.

*Salneurri gomendatua (BEZ, Matrikulazio zerga, Garraioa, Nissan Assitance, banatzailearen eskaintzadun promozio kanpaina, eta 5 urteko Garantia kilometro-mugarik gabe). Penintsula eta Belear uhartetako baliagarria, stockean dauden ibilgailuentzat. Prever plana ez dago barne.

5 urteko garantia kilometro-mugarik gabe.

PRIMERA	Pta.tik
1.6 COMFORT 4/5 P (ABS/NBA)	2.339.000
1.8 COMFORT 4/5 P (ABS/NBA)	2.639.000
2.0 SPORT 5P (climat/Xenon argiak/ABS/NBA)	3.239.000
2.0 TD COMFORT 4/5 P (ABS/NBA)	2.579.000
2.0 TD COMFORT Sport Wagon (ABS/NBA)	2.729.000



Klimatizagailu berria



GIDATU ETA GOZATU

ALDIBI AUTOAK, S.A.

NISSAN BANATZAILE OFIZIALA

Ziurrago kalea, 1 • Tel.: 942 71 00 00 • 09500 ARRASATE




Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAleta



Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAleta



Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABAleta



50 urte

gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik